

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA. 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den apirilaren 26an Bizkaiko Garraio Partzuergoaren eta Metro Bilbao, SA sozietate publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du bietarako, nahiz kontularitzako zenbait doiketa azaleratu diren, horiek egokituz gero Partzuergoaren Diruzaintza Geldikina 2,4 milioi euroan murriztuko litzatekeela; gainera, inbentario fisiko gaurkotua ez izateak iritziaren luze-zabala mugarrizten du Ibilgetu Materialari dagokionez. Metro Bilbaori dagokionez, berriz, ezin da jakin eragindako zenbatekoa zein litzatekeen hirugarrenen jabetza ondasunen erabilera kontzeptuarekin (Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta beste erakunde publiko batzuk) eta Bilboko Hiri Trenbidea eraikitzeko kontzeptuarekin.

Guztiarekin ere, ondorioztatu du bi erakundeek zuzentasunez bete dutela 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren Langileen eta Administrazioako kontratazioaren ataletan; Langileen atalean ordainsariak Aurrekontuen Lege Orokorrak aurreikusitakoaren gainetik igo dira Partzuergoan; eta Metro Bilbaon langileak kontratatatu dira ezargarriak diren printzipioak bete direla bermatu gabe; Administrazioako kontratazioan Metro Bilbaok atzerapenez abiarazi du lizitazio prozedura 4 espedientetan.